

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO UDAL ERAIKINETAN JARRI BEHARREKO ANTISORGAILU MAKINAK DIRELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko azaroan, Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

AZALPENA

Urriko Pertsonen Zerbitzu Batzordean 2017ko uztaileko udalbatzarrean hiriko antisorgailu makinak eta errespetuzko sexu erlazio seguruen inguruan onartutako kontrol mozioaren betetze mailaz galdetu genuen. Hirigintzako zinegotziaren erantzunaren arabera, antisorgailu makinak eraikinetan jartzeko azterketak bi zati ditu. Alde batetik, makinak eraikin barruan kokatzeko azterketa eta bestalde, eraikinen kanpoko aldean kokatzeko azterketa. Batzordean bertan, zinegotzi ordezkariak antisorgailu makinak eraikinen barruko aldean kokatzeko azterketa egina zegoela eta bidaliko zitzaigula esan zuen. Hilabetea igaro eta interpelazioa aurkeztu behar izan dugu, lehen azterketaren zatia jasotzeko. Bigarren azterketa badirudi azaroaren 30ean jaso bezain azkar bidaliko zaigula.

Bestalde, urriko Pertsonen Zerbitzu Batzordean eragileekiko elkarlanaz galdetu genuenean, bi azterketak jasotakoan orain arte gaian lanean aritu diren eragileekin bilera egingo zela erantzun zitzaigun. Aldiz, zinegotzi ordezkaria ez zegoen jabetuta helburua abenduaren lehen Hiesaren Kontrako Nazioarteko Egunaren inguruan, azterketak emango zituen ondorioekin, neurrietan aurrerapausoak ematea zela eta zentzu horretan, gaia arintzen ahaleginduko zela adierazi zigun, baina geroztik eragileekin ez da inolako harremanik izan.

Honegatik guztiagatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari urte luzeetan hiesaren kontra lanean jardun diren eragileekin bilera egin dezala abenduan eta antisorgailu makinak eraikinetan jartzeko azterketak eman dituen ondorioak partekatu eta eragileekin batera 2018an eman beharreko pausoak adostu ditzala.

Donostian, 2017ko azaroaren 17an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia